# AURREKO SISTEMA TITULUEN ETA IKASKETEN BALIOKIDETZAK INDARREAN DAGOEN SISTEMAREKIN (L.O.E.)

Koadro honetan aipatzen diren ikasketen edo proben titulua edo ziurtagiri akademikoa aurkeztea nahikoa izango da dagokion baliokidetza egiaztatzeko
(Ekainaren 10eko EDU/1603/2009 Aginduaren 5. art.) *

| TITULUAK edo IKASKETAK | BALIOKIDETZAK | ONDORIOAK | BALDINTZAK | ARAUDIA |
|---|---|---|---|---|
| **ESKOLA-ZIURTAGIRIA edo**<br>Ordezko ziurtagiria | **ESKOLA-GRADUATUAren titulua** [1] | **PROFESIONALAK** | LOGSE aurreko planak. | **ECD/1417/2012 Aginduaren**<br>2. artikulua |
| **Derrigorrezko Eskola ikasketak**<br>Eskola-ziurtagiria lortzeko baltdintzak betetzen dituenak. | **ESKOLA-GRADUATUAren titulua** | **PROFESIONALAK** | Eusko Jaurlaritzak egindako banakako ebazpena (LOGSE aurreko planak) | **ECD/1417/2012 Aginduaren**<br>4. artikulua |
| **LEHEN IKASKETEN ZIURTAGIRIA**<br>1945eko Legea - 1965eko Legea | **DBHko GRADUATU-titulua** | **PROFESIONALAK** | | **EDU/520/2011 Agindua k,**<br>EDU/1603/2009 Aginduaren<br>3.3. artikulua aldatzen duena |
| **LEHEN IKASKETAK (Ziurtagiri gabe)**<br>1945eko Legea - 1965eko Legea | **DBHko GRADUATU-titulua** | **PROFESIONALAK** | Eusko Jaurlaritzak egindako banakako ebazpena: EDU/520 Aginduaren I. eranskineko [2] irizpideak.<br>Irizpideak betetzen ez denean, MECDen txostena beharrezkoa izango da. | **EDU/520/2011 Agindua k,**<br>EDU/1603/2009 Aginduaren<br>3.4. artikulua aldatzen duena |
| **ESKOLA-GRADUATUAren titulua** | **DBHko GRADUATU-titulua** | **PROFESIONALAK** | | **LOE**ren 31. xedapen gehigarriko 1. idatz-zatia |
| | **DBHko 2. maila** [3] | **AKADEMIKOAK** | | **986/1991 ED**ren I. eranskina |
| **BIGARREN HEZKUNTZAko GRADUATU-titulua,** LOGSE (1/1990 Legea) | **DBHko GRADUATU-titulua** | **GUZTIAK (A / P)** | | **806/2006 ED**ren 14. art. |
| **LOGSE aurreko beste ikasketak** | **ESKOLA-GRADUATUAren titulua** | **PROFESIONALAK** | Eusko Jaurlaritzak egindako banakako ebazpena: MECDen txostena beharrezkoa izango da. | **ECD/1417/2012 Aginduaren**<br>6. artikulua |
| **OINARRIZKO BATXILERGOko ikasketa partzialak** (1961 baino lehen jaioak) | **ESKOLA-GRADUATUAren titulua** | **PROFESIONALAK** | Eusko Jaurlaritzak egindako banakako ebazpena:<br>Lehenengo bi kurtsoak eginak, osorik gainditua ez izan arren. | **ECD/1417/2012 Aginduaren**<br>5. artikulua |
| **OINARRIZKO BATXILERGO titulua**<br>14/1970 Legearen aurreko planak | **DBHko GRADUATU-titulua** | **PROFESIONALAK** | | **EDU/520/2011 Agindua k,**<br>EDU/1603/2009 Aginduaren<br>3.2. artikulua, aldatzen duena |
| **BATXILERGOko 4 maila oso,**<br>14/1970 Legearen aurreko planak,<br>proba orokorrik edo errebalidarik gabe. | | | | |
| **BATXILERGO TEKNIKOko edo LAN BATXILERGOko 5 maila,**<br>proba orokorrik edo errebalidarik gabe. | | | | |
| **BATXILERGOko ikasketa partzialak**<br>LOGSE aurreko planak (1/1990 Legea),<br>Oinarrizko Batxilergoa salbu | **BATXILERGO-titulua** | **PROFESIONALAK** | Goi-mailako proba edo errebalida edota, gehienez ere, batxilergo hartako 2 irakasgai gainditu gabe zituela adierazten duen ziurtagiri akademikoa. | **EDU/1603/2009 Aginduaren**<br>4.4. artikulua |

| TITULUAK edo IKASKETAK | BALIOKIDETZAK | ONDORIOAK | BALDINTZAK | ARAUDIA |
|---|---|---|---|---|
| **UNIBERTSITATE AURREKO ikasturtea** 1953ko otsailaren 26ko Legea | **BATXILERGO-titulua** | **GUZTIAK (A / P)** | | **EDU/520/2011 Agindua,** EDU/1603/2009 Aginduaren 2.3. artikulua aldatzen duena |
| **IEEko 1. zikloa** | **DBHko GRADUATU-titulua** | **GUZTIAK (A / P)** | | **986/1991 ED**ren II. eranskina |
| **IEEko 2. zikloko 1. ikasturtea** | **BATXILERGO-titulua** | **PROFESIONALAK** | Gehienez ere, 2 irakasgai izatea gainditzeko. | Hezkuntza Ministerioaren **irizpideak,** 2010/09/03 |
| **BATXILERGO BATERATU eta BALIOANIZTUNeko 2.kurtsoa** | **DBHko GRADUATU-titulua** | **GUZTIAK (A / P)** | | **986/1991 EDren** I. eranskina |
| **BATXILERGO BATERATU eta BALIOANIZTUNeko ikasketa partzialak (1. eta 2. BBB)** | **DBHko GRADUATU-titulua** | **GUZTIAK (A / P** | Gehienez ere, 2 irakasgai izatea gainditzeko, lehenengo bi mailetan. | **EDU/520/2011 Agindua,** EDU/1603/2009 Aginduaren 2.1. artikulua aldatzen duena |
| **BATXILERGO-titulua (BBB)** | **BATXILERGO-titulua** | **PROFESIONALAK** | | **LOE**ren 31. xedapen gehigarriko 2. idatz-zatia |
| **UBI** | **BATXILERGO-titulua** | **GUZTIAK (A / P)** | | **986/1991 ED**ren I. eranskina |
| **BATXILERGO-titulua (LOGSE)** | **BATXILERGO-titulua** | **GUZTIAK (A / P)** | | **806/2006 ED**ren 16. artikulua |
| **INDUSTRIA-IKASKUNTZA** | **DBHko GRADUATU-titulua** | **PROFESIONALAK** | Industria-hastapeneko bi maila eta Industria-ikaskuntzaren lehenengo maila gainditzea. | Hezkuntza Ministerioaren **irizpideak,** 2009/09/24 |
| **LHI ikasketa partzialak** | **DBHko GRADUATU-titulua** | **PROFESIONALAK** | Gehienez ere, 2 irakasgai izatea gainditzeko. | Hezkuntza Ministerioaren **irizpideak,** 2009/12/09 |
| **TEKNIKARI LAGUNTZAILE titulua** 14/1970 Legea | **DBHko GRADUATU-titulua** | **GUZTIAK (A / P)** | | **LOE**ren 31. xedapen gehigarriko 3. idatz-zatia |
| | **TEKNIKARI-titulua** (dagokion lanbidearena) | **PROFESIONALAK** | | |
| | **BATXILERGO-titulua** | **PROFESIONALAK** | | **EDU/1603/2009 Aginduaren** 1. xedapen gehigarria |
| **LANBIDE HEZIKETAko TEKNIKARI titulua, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Lanbide Prestakuntza, edo Kirol-teknikaria** | **BATXILERGO-titulua** | **PROFESIONALAK** | | **EDU/1603/2009 Aginduaren** 1. xedapen gehigarria |
| **2. mailako LANBIDE-MODULUA** | **DBHko GRADUATU-titulua** | **GUZTIAK (A / P)** | | **986/1991 EDren** II. eranskina |
| **LANBIDE HEZIKETA 2ko 3. maila** (Ikaskuntza berezien erregimena) edo **LH 2ko 2. maila** (Erregimen orokorra) | **BATXILERGOko 1. maila** | **AKADEMIKOAK** | | **986/1991 EDren** I. eranskina |
| **TEKNIKARI ESPEZIALISTA titulua** 14/1970 Legea | **GOI-MAILAko TEKNIKARIAren titulua** dagokion espezialitatean | **GUZTIAK (A / P)** | | **LOE**ren 31. xedapen gehigarriko 4. idatz-zatia |

| TITULUAK edo IKASKETAK | BALIOKIDETZAK | ONDORIOAK | BALDINTZAK | ARAUDIA |
|---|---|---|---|---|
| **GIZA ZIENTZIEN 4 maila oso, ELIZA-IKASKETEI dagozkienak** | **DBHko GRADUATU-titulua** | **PROFESIONALAK** | | **EDU/520/2011 Agindua,** EDU/1603/2009 Aginduaren 3.2. artikulua aldatzen duena |
| **GIZA ZIENTZIetako 6 maila oso eta FILOSOFIAko, gutxienez, 1, edo GIZA Zientzietako 5 eta FILOSOFIAko, gutxienez, 2, ELIZA-IKASKETEI dagozkienak** | **DBHko GRADUATU-titulua** | **GUZTIAK (A / P)** | | **EDU/520/2011 Agindua,** EDU/1603/2009 Agindua 2.2. artikulua aldatzen duena |
| **Lehen Hezkuntzako MAISU- edo MAISTRA-titulu ofiziala** | **BATXILERGO-titulua** | **GUZTIAK (A / P)** | | **EDU/520/2011 Agindua,** EDU/1603/2009 Aginduaren 2.4. artikulua aldatzen duena |
| **ERDI MAILAko edo GOI-MAILAko SARBIDE-PROBA** gaindituta:<br>- Lanbide Heziketa<br>- Arte Plastikoetako eta Diseinuko Lanbide Prestakuntza<br>- Kirol-ikasketak | **DBHko GRADUATU-titulua** | **PROFESIONALAK** | Baldintza hauetako BAT egiaztatzea:<br>a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo bi mailetako irakasgai guztiak gainditzea.<br>b) Erdi-mailako zikloa ikasita izatea eta lanbide-heziketako moduluen kopuru jakin bat gaindituta izatea; modulu horiek zikloaren iraupen guztiaren erdia iraun behar dute, gutxienez.<br>c) Goi-mailako zikloa ikasita izatea eta lanbide-heziketako moduluen kopuru jakin bat gaindituta izatea; modulu horiek heziketa-zikloaren iraupen guztiaren heren bat iraun behar dute, gutxienez.<br>d) Goi-mailako arte-ikasketen 10 ECTS kreditu, gutxienez, gaindituta izatea.<br>e) Espainiako hezkuntza-sisteman eskatzen den eskolatzearen baliokide diren atzerriko ikasketak egiaztatzea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailan sartzeko.<br>f) Helduentzako Bigarren Hezkuntzako 1. mailako arlo guztiak gainditzea. | **EDU/520/2011 Agindua,** EDU/1603/2009 Aginduaren 3.1. artikulua aldatzen duena |
| | | | Baldintza hauetako BAT egiaztatzea:<br>a) DBHko 3. mailara igotzea, irakasleek hala erabaki dutelako, eta ez 2. maila errepikatu ezin delako.<br>b) Gizarte Garantiako Programa bat edo HLPP bateko derrigorrezko moduluak gaindituta izatea + erdi-mailako heziketa-zikloa ikasita izatea, eta, horrez gain, lanbide-heziketako moduluen kopuru jakin bat gaindituta izatea, heziketa-zikloaren iraupen guztiaren 1/3, gutxienez, irauten duena. | Hezkuntza Ministerioaren **irizpideak,** 2009/09/24 |
| **GOI-MAILAko SARBIDE-PROBA** gaindituta<br>- Lanbide Heziketa<br>- Arte Plastikoetako eta Diseinuko Lanbide Prestakuntza<br>- Kirol-ikasketak | **BATXILERGO-titulua** | **PROFESIONALAK** | DBHko Graduatu-titulua edo ikasketa horien baliokidetza izatea. | **EDU/1603/2009 Agindu**aren 4.1. artikulua |

| TITULUAK edo IKASKETAK | BALIOKIDETZAK | ONDORIOAK | BALDINTZAK | ARAUDIA |
|---|---|---|---|---|
| **GOI-MAILAko ARTE IKASKETArako SARBIDE-PROBA** gainditua,<br>19 urtetik gorakoentzako | **BATXILERGO-titulua** | **PROFESIONALAK** | Baldintza hauetako BAT egiaztatzea:<br>a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo ondorio akademikoetarako horren baliokidea den beste titulu bat izatea.<br>b) Agindu honen 3. artikuluaren 1. puntuan ezarritako baliokidetza izatea.<br>c) Goi-mailako arte-ikasketen 15 ECTS kreditu, gutxienez, gaindituta izatea. | **EDU/1603/2009 Agindua**ren 4.2. artikulua |
| | **DBHko GRADUATU-titulua** | | Baldintza hauetako BAT egiaztatzea:<br>a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo bi mailetako irakasgai guztiak gainditzea.<br>b) Erdi-mailako zikloa ikasita izatea eta lanbide-heziketako moduluen kopuru jakin bat gaindituta izatea; modulu horiek zikloaren iraupen guztiaren erdia iraun behar dute, gutxienez.<br>c) Goi-mailako zikloa ikasita izatea eta lanbide-heziketako moduluen kopuru jakin bat gaindituta izatea; modulu horiek heziketa-zikloaren iraupen guztiaren heren bat iraun behar dute, gutxienez.<br>d) Goi-mailako arte-ikasketen 10 ECTS kreditu, gutxienez, gaindituta izatea.<br>e) Espainiako hezkuntza-sisteman eskatzen den eskolatze-prozesuaren baliokide diren atzerriko ikasketak egiaztatzea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailan sartzeko.<br>f) Helduentzako Bigarren Hezkuntzako 1. mailako arlo guztiak gainditzea. | **EDU/520/2011 Aginduak,** EDU/1603/2009 Aginduaren 3.1. artikulua aldatzen duena |
| | | | a) DBHko 3. mailara igotzea, irakasleek hala erabaki dutelako, eta ez 2. maila errepikatu ezin delako.<br>b) Gizarte Garantiako Programa bat edo HLPP bateko derrigorrezko moduluak gaindituta izatea + erdi-mailako heziketa-zikloa ikasita izatea, eta, horrez gain, lanbide-heziketako moduluen kopuru jakin bat gaindituta izatea, heziketa-zikloaren iraupen guztiaren 1/3, gutxienez, irauten duena. | Hezkuntza Ministerioaren **irizpideak**, 2009/09/24 |
| **ARTE-IKASKETAK** | **BATXILERGO-titulua** | **PROFESIONALAK** | Hori egiaztatzea, EDU/520/2011 Aginduaren II. eranskinean zerrendatutako dokumentu ofizialetako baten bidez [(4)]. | **EDU/520/2011 Aginduak** EDU/1603/2009 Aginduaren 4.5. artikulua aldatzen duena |
| **UNIBERTSITATEko SARBIDE-PROBA** gaindituta**,** 25 urtetik gorakoentzako | **BATXILERGO-titulua** | **PROFESIONALAK** | Baldintza hauetako BAT egiaztatzea:<br>a) DBHko graduatu-titulua edo titulu horren baliokidea izatea ondorio profesionaletarako. [(5)]<br>b) Unibertsitate-ikasketen 15 ECTS [(6)] kreditu, gutxienez, gaindituta izatea. | **EDU/520/2011 Aginduak,** EDU/1603/2009 Aginduaren 4.3. artikulua aldatzen duena |
| | **DBHko GRADUATU-titulua** | | | **EDU/520/2011 Aginduak,** EDU/1603/2009 Aginduaren 3.5. artikulua aldatzen duena |

*** Ekainaren 10eko EDU/1603/2009 Aginduaren 6. artikulua eta horren aldaketa, martxoaren 7ko EDU/520/2011 Agindua: Beste ikasketa batzuen baliokidetza, ondorio profesionaletarako:**
«Beste ikasketa batzuk ondorio profesionaletarako baliokidetzeko eskaerak, aurreko artikuluetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-tituluarekin edo Batxilergo tituluarekin zehaztu ez direnak, dagokion autonomia-erkidegoko organo eskumendunari egin beharko zaizkio; horiek Hezkuntza Ministerioaren aurretiko txosten loteslea eskatuko dute, baldin eta azken horrek ez baditu ezarri erabakia hartzeko ezarri beharreko irizpideak».

(1) **Ekainaren 20ko ECD/1417/2012 Aginduaren 1. xedapen gehigarria: Baliokidetzaren efektuak:**
Agindu honetako lan-odorioetarako baliokidetzak ez du izango Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titularekin inolako baliokidetza.

(2) **Martxoaren 7ko EDU/520/2011 Aginduaren I. ERANSKINA**:
**3.4. artikuluari dagozkion lehen mailako ikasketen ziurtagiria lortzeko baldintzak bere garaian bete zituela egiaztatzeko irizpideak:**
1. 1954 baino lehen jaiotakoek (urte horretan jaiotakoak barne): Derrigorrezko eskolatzean sei urte egin izana egiaztatzea eta azken ikasturteko batez besteko nota bostetik gorakoa izatea; hori, hain zuzen, behar bezala betetako Eskolatze-liburuxkaren bidez edo dokumentu analogo baten bidez egiaztatu behar da.
2. 1954. urtetik 1960. urtera bitartean jaiotakoak: Derrigorrezko eskolatzean zortzi urte egin izana egiaztatzea eta batez besteko nota bostetik gorakoa izatea; hori, hain zuzen, behar bezala betetako Eskolatze-liburuxkaren bidez edo dokumentu analogo baten bidez egiaztatu behar da.
3. Helduen kultura-sustapeneko txartela edo, bere garaian, Lehen Hezkuntzako Probintzia Ikuskaritzak egindako ziurtagiria; bertan, behar bezala egiaztatu beharko da Lehen ikasketen ziurtagiria lortzeko probak gainditu zirela.
4. Dagokion hezkuntza-administrazioak edo Lehen ikasketen ziurtagiria lortu zuen zentroak egindako ziurtagiri ofiziala, Ikuskaritzaren oniritziarekin; ziurtagiri horretan, bere garaian lortutako Lehen ikasketen ziurtagiriko datuak agertu beharko dira, galtzeagatik edo beste arrazoi batzuengatik agiria ez izatea dela eta.
5. Hezkuntza Ministerioak Lehen ikasketen ziurtagiria lortzeko egindako proba gainditu izana adierazten duen ziurtagiri ofiziala.
6. Erregistro Zibileko jaiotza-ziurtagiri literala; bertan, Lehen ikasketen ziurtagiria lortu izana jasota agertuko da.
7. Irakaskuntza Ertaineko Institutuaren (BHI) ziurtagiria, Batxilergo Orokorreko edo Lan Batxilergoko bigarren maila gainditu dela adierazten duena, 1958ko martxoaren 21eko Dekretuak, Lehen Ikasketen Ziurtagiriak lortzeari buruzkoak, 14. artikuluan araututakoaren arabera («BOE» 1958-IV- 4).

(3) DBHko 2. maila ez da eskola-graduatuaren baliokidea ondorio profesionaletarako.

(4) **Martxoaren 7ko EDU/520/2011 Aginduaren II. ERANSKINA**: **4.5. artikuluan zehazten den egiaztapenerako dokumentu ofizialak:**
1. Dagokion espezialitateko musika-irakaslearen titulua, irailaren 10eko 2618/1966 Dekretuan arautua.
2. Musikako edo dantzako titulu profesionala, urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrekoak, arautua.
3. Operako abeslariaren diploma, urtarrilaren 29ko 313/1970 Dekretuaren babesean emandakoa.
4. Dantzako ikasketa ofizial guztiak gainditu direla egiaztatzen duten dokumentuak, urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoa, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrekoa, ezarri baino lehenagokoak: musika-kontserbatorioek, dantza-kontserbatorioek, eta arte dramatikoko eta dantzako eskolek emango dituzte, eta dokumentu horietan, berariaz adieraziko da ikasketa-plana osatzen duten ikasketak amaitu direla.
5. Musikako eta arte dramatikoko ikasketen tituluak edo diplomak, errege-dekretuz irakaskuntza-ondorioetarako lizentziatu-tituluaren balioa eman zaiena.
<u>Musika:</u>
a) 1942ko planeko musikako titulu profesionala.
b) Bakarlarien espezialitateko goi-mailako diploma, urtarrilaren 29ko 313/1970 Dekretuan arautua.
<u>Arte dramatikoa:</u>
a) 1942ko planeko irakasle-titulua eta teatroko aktorearen titulu profesionala.
b) Arte dramatikoko diploma, abuztuaren 9ko 2607/1974 Dekretuan arautua.

(5) Kasu honetan, ez du balioko ondorio profesionaletarako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-tituluaren baliokidetzak, hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitateko sarbide-proba gaindituz lortutakoak.

(6) **Martxoaren 7ko EDU/520/2011 Aginduaren Bosgarren xedapen gehigarria: Goi-mailako ikasketen ziurtagiria:**
Agindu horretan 10 edo 15 ECTS kreditu gainditzeari buruz dauden erreferentzien ordez, lehenengo mailako kreditu-kopuruaren seiren bat edo laurden bat, hurrenez hurren, osatzen duten ikasgaiak gainditzea jarri beharko da baldintzatzat, edo, bestela, gutxienez, urte osoko bi irakasgai gainditzea edo lauhilekoko lau irakasgai, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak —unibertsitateko ikasketa ofizialak antolatzen dituenak— eta urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuak —Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak araututako goi-mailako arte-ikasketen antolakuntza zehazten duenak— araututakoen aurreko ikasketetan.